



berria Taldearen
zerbitzu enpresa

berria

EUSKAL HERRIA

| POLITIKA | EUSKARA | HEZKUNTZA | OSASUNA |

EH Bilduk Jaurlaritzari egotzi dio Euskorpusetik «kanpo uztea» sektorean urteak daramatzaten erakundeak

Juan Ignacio Perez Iglesiasek adierazi du orain elkartearen sorburuan daudenez gainera «zenbait erakundek» izango dutela aukera Euskorpusen parte hartzeko; ziurtatu du EHUri eskaini ziotela, baina ez zutela haren erantzunik jaso.



aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**





Irati Urdalleta Lete

2025EKO MARTXOAREN 7A - 14:15



Entzun

00:00:00 | 00:03:39



Eusko Jaurlaritzako ordezkariak joan zen hilean aurkeztu zuten Euskorpus, euskara adimen artifizialaren «iraultzara» eramango duen proiektua, arlo digitalean hizkuntzaren presentzia «bermatuko» duena. «Lankidetza publiko-pribatuaren» emaitza zela adierazi zuten; alabaina, gaur Eusko Legebiltzarrean EH Bilduk salatu duenez, «kanpoan» utzi dituzte sektorean urteetan lanean aritu diren zenbait eragile: besteak beste, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hitz zentroa eta Elhuyar aipatu dituzte. Juan Ignacio Perez Iglesias Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari gaiaren inguruan galdetu dio Josu Aztiria EH Bilduko legebiltzarkideak gaur Eusko Legebiltzarrean, eta hark erantzun dio EHU bertan egotera gonbidatu zutela, baina ez ziela erantzun; aipatu du, halaber, berrikuntza proiektuetarako deialdiak egiten direnean «zenbait erakundek» parte hartzeko parada izango dutela. Hain zuzen, azaldu du «ateak zabal-zabalik» daudela aipaturiko eragile horiek ere «parte hartu» ahal izateko.

Euskarak urteetan urratu du bidea teknologia digitalen arloan, eta, azkenaldian, baita adimen artifizialean ere. «Euskal eskalan» gaia «garaiz eta ondo» landu da, Aztiriaren irudiko. Horretan lanean aritu diren erakundeak, ordea —besteak beste, Hitz zentroa eta Elhuyar aipatu ditu—, orain ez dira Euskorpusen parte. «Oso zaila egin zitzaigun ulertzea Euskorpusen berariaz baztertu dituztela», salatu du Aztiriak. Hauek dira partaideak: Vicomtech, Ereil Technologies, Trebe Language Technologies, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Baleuko, Mixer, EITB, CAF, MCC, Petronor, Euskaltel fundazioa, Kutxabank, PWC eta Logikaline.

Perez Iglesiasek erantzun dio Aztiriaren kritikari. Haren esanetan, Vicomtech da Euskorpusaren —Euskorpus sustatzeko sortutako elkartea— buru, eta Industria

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



garaia zelako».

«Ateak zabalik»

Kontuak kontu, Perez Iglesiasek elkarlanerako deia egin du, egongo baita horretarako paradarik, haren irudiko: «Garrantzitsuena da berrikuntza proiektuetarako deialdiak egiten direnean zenbait erakundek parte hartu ahal izango dutela». Aztiriari mintzatu zaio: «Ateak zabal-zabalik daude zuk aipatu dituzuen eragile horiek parte hartu ahal izateko». Sailburuak badu horretarako esperantza: «Beste eragile askok hartuko dute parte, zalantzarik gabe».

GAIAK

- Teknologia eta robotika (adimen artifiziala)
- Zientzia eta teknologia
- Ekonomia eta finantzak
- Euskorpus
- Hitzak
- EH Bildu
- EHU
- Eusko Jaurlaritza
- EAE
- Euskal Herria
- Euskara eta hizkuntzak

Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre ematea da BERRIaren egitekoa. Eginkizun horri eusteko, ezinbestekoak dira egunkariaren independentzia ekonomikoa eta editoriala. 2025 amaierarako, 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.


Egin zure ekarpena

aldi hau

kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAk.

Egin zure ekarpena

INTERESGARRIA IZAN**BEKKIAREN
albiste buletinak**

- Astekaria
- Badok-en buletina
- Goizeko buletina
- Arratsaldeko buletina
- Kinka
- Mendia
- BERRIA Ikasgela
- Kazetaritza ardatz

HARPIDETU

onatu ideak:
ta Kutxabankeko



Japoniako autogileak, arriskuak hartu beharrean

JOSEP SOLANO



Mertxe Sueskun: «Dibertitzeari uztean,
orduan utziko dut eskultura»

UXUE REY GORRAIZ

Udan kazetaritza praktikak egin nahi dituzu **BERRIA**n?

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



NABARMENDUAK



Agurne Gaubeka:
«Euskara ofizial
izate hutsak ez du
ezer konpontzen»

ARANTXA IRAOLA



Ospakizun egun bat
eta erronka kolosal
bat

IOSU ALBERDI

«Guk ez dugu izan
Jauralaritzaren
babesik: ez orduan,
ezta 30 urteren
ondoren ere»

JON ORDOÑEZ GARMENDIA



'Eu
itx
MIKE

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa


Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAk.

**Egin zure
ekarpena**

